

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

180n. Zenbakia Abendua-Lotazilla  
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**GABONAK!  
OLENTZERO!  
JAIOTZAK!  
POZA GUZTIONTZATI!**

## "IKASTOLAK ETA H'A"

Ikastoletan ari dira batzuk ia H'rik zergaitik erabil-tzen ez duten galdezka, indarrez H'a sartzeari eragin nairik. Arrazoi "peregrinoak" erabiltzen dituzte ande-reñoai indar egiteko:

– Zuen umeak atzeratuak geldituko dira, "desfasa-tuak" eta abar...

Badirudi profeten aoz ari dirala eta etorkizunaren berri iñork ez bezela, dakitela.

"Lo dijo Blas, punto redondo".

Pontifikatzaille berriak sortu zaizkigu Euskal-errian eta zertan pentsaturik ez degu. Len tonto ba gaude ain-beste fut-bolekin, orain, berriz, geure-geureak diran arazoetan ere bearrik, eta buruausterik ere ez. Eurak, "apez-piku" korbatadun berri auek pentsatuko dute gure partez.

Ori duk mutiltxo! Beti amaren gonapean.

Atzeratuak eta "desfasatuak"? Zeintzuk? H'rik era-kusten ez duten ikastolak, ala H'ak zintzurreraiño sar-tzen diskien ikastolak? H gangar orreri utzi egiozute pakean, pakerik nai baldin badezute.

H'ak indarrez sartzen badizkiozute umeai eta lan al-perrikakoak jartzen beuren bizkar argaletan, eurak izango dituzute epaikari eta juez urte asko baiño leen. Orduan, ezaguera izango duten orduan eta gertu dago:

– Zergaitik eragin diguzute ainbeste lan alperrika-ko? Abuso galanta egin dezute gurekin gure auleria aprobetxatuz.- Esango dizute.

Elizari esaten diozute ez lukeela bere dotriñarik umeai irakutsi bear (zuek zuen ideolojiak egiñ-alan za-baltzen badizkiozute ere) eurak aukeratu lezakeen ar-tean. Eta bitartean, zuek ari zerate, inportantzi gabeko gauza batean, H'ren uztarri aztuna umearen sorbaldan indarrez jartzen.

Nun dezute askatasun-zaletasuna? Nun dezute ande-reñoi errespetoa? Ikastola-zuzentzaileei begirunea? H'rik nai ez dutenak, zergaitik menperatu nai dituzute eta nai ez duten bideetik sartu arazi?

Wren ikastolak, biar zuen epaikari izango diran umeak ezitzen ari zerate, eta, setakeriz, bear ez diran lan aztunak lepogaiñean jartzen, alperrikakoak dirala-ko, H'ak ez bait du bioloji aldetik bizi luzerik. Zenbat eta H geiago, ainbat eta pixua aztunago, orduan eta H'ren eriotza leenago.

Bide onetik dijoazen ikastolai utzi, mesedez, pa-kean. Pedagojiak ere zuen H'ri buruz esan bearrik izan-go dula uste dut, ikastoletako lanetan. Kuadroa, on zuek ezagutu edo ez, alderantziz ari zerate margozten. Ori bai, esagutu bearra dago, oso "moderno" da...

ARRINDATAR ANES  
(1978)

≠ ≠ ≠

### IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskal-  
kia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-  
rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER  
aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango  
dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez  
idatzita eta bitarte bi dirala. Sari irabazten dabenak  
ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabe-  
nak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena  
emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK AL-  
KARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreate-  
gi, 14, 2.º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren  
azkenerako emongo da maikoen erabagia eta  
ZER'en agertuko da, Urterilllean, baita DEIA  
Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.º 40.000 pezeta.
- 2.º 30.000 pezeta.
- 3.º 20.000 pezeta.
- 4.º 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki  
baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

## GABONAK DATOZ!

Abenduaren asieran elduko da aldizkari onen zenbaki au gure irakurleen eskuetara. Bahia urren-goia eltzen danerako jaiak igaroak izango dira. Bidezko gauzea da ba jai-inguruan sortzen dan giro bereziari buruz zerbait gaur idaztea.

\*\*\*

Jaiak baiño lentxuago erririk geienetan izango da Olentzero'ren oiartzunen bat urrean edo urriñean.

Aralar menditik dator Olentzero euskaldun zarra, jentillen azkena eta Kismi'ren etorrerea iragarten, etxerik etxe eta erririk erri. Mundu barria iragarten dausku eta orregaitik beragan agertzen dan zarkeria erre egiten da, Erdi-Aroan zan sorginak erretearen oitureari jarraituz edo beste urtealdi baten ospatzen dan San Juan sua gogoratuz.

\*\*\*

Olentzero'k iragarten dauzan jaiak ospatzen asiko gara gero.

Gure etxeetan Belena edo ikusmen-bidez agertzen dan Jesus'en jaiotzea ipiñiko da. Etxeetan eta eleizetan. Zerbait esango dausku gai oneri buruz gure Jon Egilleor'ek, ZER'en zenbaki onetan.

Beste leku batzutan erri zugatz eta baso-zalea izan garala gogoratzeko gabon— zugatza ipiñiko da. Oiturea kanpotik etorria dogu, baiña gutzat bere adierazpen berezia dauka.

Eta ospakizun bat izango dogun aparria ezin aitzu: Urte osorako zaintzen da ogi bedeinkatua, azak, oillokiak edo bildotsa, gaztañak, arroz-esnea, albimerea, eta urteak dirala kanpotik etorri jakun turroia.

\*\*\*

Giro orretan ospatu izan dira aspaldion euren garrantzia galdu daben beste jai batzuk: San Esteban, Ume errubakoena, Sendi deunarena (au oraintsu igande orretan ezarria da). Gero Gabon-Zar. Onek be berezitasuna galdu egin dau. Azkenerrantza Urte Barri ta Erregeen Eguna.

\*\*\*

Gure sendietan berotasun aundiaz ospatuko diran jai oneitan Zoriona irakurle guziori! Gabonak ondo egin, urte zarra ondo amaitu eta barria obeto asi.

✧ ✧ ✧

### EGUTEGIA

Aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k eguneroko orritxua eskiñiko dautzun Egutegia argitaratu dau, Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa'ren laguntzaz.

Urte Barrirako oparia izan bekizue doan emoten dogun egutegi au.

Eskatu egizu urren daukazun BBK'ren etxean edo Euskerazaleak Alkartearen etxean (Colon de Larreategi 14, 2.ª, eskoia).

ZORIONAK!!!

## DURANGO'ko LIBURU-AZOKA

### EKINTZA EDERRA

Irakurtera zaletasun aundirik ez dagoala gure inguruetan, sarri entzuten dogun gauzea. Egia esan, aldizkariak saltzen diran tokietan ainbat gauza erosten dirala ikusten dogu, batez be maitemiñaren arazoak agertzen dabezan aldizkariak. Liburu-Dendak, ostera, eda-tetxeak baiño askoz gitxiago dira eta gitxiago euretan ibiltzen diranak.

Orregaitik, liburuak zabaltzeko egiten diran ekintzak benetan txalagarriak dira.

Izkuntzalariak esaldi au ziurtatzen dauskue: Irauten daben izkuntzak, asko idazten dabenak dirala.

### JARRAITZEN DAUAN EKINTZA

Sarrera lez esan dogun on ez da besterik Durango'ko Liburu-Azokari buruz zerbait esateko baiño.

Ainbat urte dira Sorkunde Garbiaren jai-inguruan Durango'n euskal liburuen azoka ospatzen dala. An agertzen eta saltzen dira euskeraz idatzita dagozen liburuak, baita euskereari buruz diranak.

Olako ekintzak astea izaten da errezagoa zintzo jarraitzea baiño. Eta Durango'ko Azoka onek ainbeste urtetan jarraitu dau. Txaloak zor jakez ba, eratzailleai.

### AGERTU ETA SALDU

Azoka ori, batez be liburuak agertzeko, erakusteko, izaten da.

Gitxi idaztea izan ba'da euskaldunen utsa, uts aundiagoa izan da aspaldiko urteetan danerako egiten dan zabalkundea ez egitea. Zer aurreratzen dogu idatzita, gero, zabalkunderik egiten ez dalako, liburuak saltzen ez ba'da?

Durango'ko Azoka liburuak zabaltzeko bide on bat izaten da.

Eta saltzeko be bai.

Ez da jakiten irakurri barik liburu bat zelakoa dan, baiña liburuaren inguruan baldintza batzuk izaten dira, gaia bera ta izena deigarri diralako eta idazlea ezaguna dalako eta beste zeozergaitik liburuak erosteko egarria sortzen jaku.

Durango'ko azoka ba-da, liburuak saltzeko aukerea be.

### AURKEZPENAK

Liburu barrien zabalkunderako bide bat euren aurkezpena egitea izaten da. Orretarako gela berezi bat izaten da azoka lekuaren barruan. An mai-buruan jarten dira liburuaren aurkezleak eta ara joaten dira liburuaren barria jain nai dabenak.

Bearrezkoa da zabalkunde on eta bearrezkoa baita urrengo egunean izparringietan albistea agertzea, askok jakin dagien zelako liburuak aurkeztu dan.

=>=> =>=> =>=>

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

## BELENDARRAK

Aurten be, beti danez, ba datoz BELENDARRAK euren erakusketak danon aurrean iminten, Eta, euren oitu rea dan lez, biotz-biotzez egiñak. Orretarako zortzi-bederatzi illebate luzetan eten barik euren lanari lotuta egon dira ta, egia esateko, lan orretan buru -belarri sartuta.

Urteroko lan on gitxi ez ba da'be, aurten geiago egin dabe, au da: "BELENDARREN XXXI'gko. LATERRI BATZARRA" Bilbao'n egitekoaz geitu dabe euren lana. On dana ospatzeko gertau dabezan erakusketak iru tokitan ezarriko dabez; izan be oneixek dira:

1'goa. Beti lez, SANTIAGO DEUNAREN ELEIZ NAGUSIAREN ATERPE GOTIKOAN.

2'gna. ABENDA-ELESTI (ETNOGRAFI) ERAKUS-TOKIAN. Au Maria Muñoz kalean dago.

3'gna. Bilbao'ko Gran Via kalean B.B.K.'ren Agerpen-Aretoan.

Lenengoa ta bigarrena, Gabonillaren ZORTZI (8)'tik Urtañllaren SEIRA (6) arte zabalik egongo dira.

Irugarrena, Gabonillaren 1'etik 15'era bakarrik.

Zioak guztiz ezbaridiñak izango dira ta oneixek atan be:

SANTIAGO DEUNAREN ELEIZ NAGUSIAREN ATERPEAN amabost (15) zio izango dira ta gerotxuago aitatu doguz zeren buruz egindakoak.

ABENDA-ELESTI ERAKUS-TOKIAN, bederatzi (9) "EUZKO zio" izango dira.

B.B.K.'ren aretokoan, "ludi-zear dagozan laterrikoak", guztiz berrogeta bi (42) izango. Oneik, naiz eta txikia-goak izan, ikusgarriak bene -benetan.

Gauza guzti onein barria emoteko, onegaz asiko dogu:



Euren  
IKURRA

**BELENDARREN  
XXXI'gko. LATERRI BATZARRA  
Bilbao'n, 1993'gko. Gabonillaren  
4'tik - 8'arte**

Batzar orretara etorriko diranentzat, ona  
emen izango dan EKINTZEN  
ZERRENDA

### Larunbata, 4'an

Arratsaldeko lauretatik asita errezkadan ekintza oneik izango dira:

—Nervion Hotelan Batzarkideen onartzea.

—Artxanda'n dagoan Ostatu Nagusira berebillen joatea.

—Ondoren, Batzarraren zabalkundea.

—An, "JATORKI" abezbatzak ekingo dau, afari bitartean.

### Igandea, 5'an

—Begoña'ko Andra Maria'ren Eleiz Nagusian, Bilbao'ko Gotzaiñak zuzenduriko Meza Deuna.

—Ondoren ooresko aureskua, argazkiak eta gero Nervion ibai ertzetik-zear, Portugalete ta Ondarreta tartean dagoan zubi dindilariraiño; aurten bere mende urrena bete izan dauana.

—Ereaga'ko ondartza inguruan bazkaria izango da.

### Arratsaldean

—Bilbao'n, len eta bein, B.B.V.'ko itxalezko Belena ikustea; ondoren, B.B.K.'ren aretoan, gizarteko 42 ludi-zearko Belenak ikustatzea.

—Bilbao'ko Udal-liburutegian, Basaras'tar Manuel Jaunaren itzaldia entzutea ta, baita, Fernandez'tar Boni txistulari ospetzuaren ekintzarik ederrenak be.

—Ondoren afaldu ta atsedena artzea.

### Astelena, 6'an

—Gernika'ra joatea ta Batzar Nagusien Etxea ikertzea.

—Jarraian Bermeo'ra, antxe bazkaltzeko.

### Arratsaldean

—Bermeo'ko FRANZISKOTARREN eleizan Meza Deuna entzutea.

—Gero, Bilbao'n, INMAKULADA'ko ABESBATZAK eta ANTXIETA ereskitzaren ekintzak.

—Euzkadi'ko Ostatu Nagusian, "bertoko afari jator bat" eta, tartean, TRIKI-TRIXA baten ekiñaldia.

### Astartea, 7'an

—Nervion Hotelaren aretoetan, Euzkadi irratikoa dan Torrelledo'tar Florenzio Janaren itzaldia.

—Bilbao'ko Uri-zarrean dagoan Abenda-elezi Erakus-tokian, egongo diran "Bizkai'ko kutsuaz" egindako EUZKO-GOGOKO BELENAK ikertzea.

—Apur bateko ASTI ASKEA,

Euzkadi'ko Ostatu Nagusian bazkaldu.

—Alkarte tarteko bezuzak euren artean trukatu.

### Arratsaldean

—SANTIAGO DEUNAREN Eleiz Nagusiko aterpean, BELEN'en erakusketa.

—"Bilbaina" deritxon biltokian Belendar Batzarkideen afari "ofiziala".

## OITUREAK

### ALKARTASUN GARAI-IKURRAK EMOTEA BATZARRAREN AMAIEREA

#### Eguastena, 8'an

Batzarkideen urteerea, txandaka, etor diran tokia kontuan artuta.

Orain aztertuko doguz Bilbao'ko toki bakoitzean izango diran Belen - zioak.



#### B.B.K.'ren aretoan

Orretarako B.B.K.'ren aretokoagaz asiko dogu. Areto orretan, len esan dogun lez, BERROGEI BELENETIK gora izango dira aurkeztuko dauskuezanak; ludi-zear egiñak diran ezker, bakoitzak here tokiren kutsua erakutsiko dausku. Euren artean, Asia, Europa, Ameriketak eta abar eukiko doguz gure artean.

Bakoitza txikia edo oso txikia izango da, baña danak ikusgarriak eta dakarskun mezua artuko dogu, biotz-zabalez eurak ikusten joatekotan.

#### Abenda-Elezti Erakus-tokikoa.

Ondoren ABENDA-ELEZTI ERAKUS-TOKIKOA daukagu. Emen ikusiko doguzan BELENAK "EUZKO-zioak" daroetz, baña "BIZKAI-kutsuaz" ornituak, bizkaitoki askoren sena daroelako. Bakoitzak eukiko dauan zioa auxe da:

- AINGERUAREN ATEA.....(Bilbao'ko  
ELEIZ NAGUSIA)
- "LA MERZED" ELEIZEA.....(Bilbao)
- "SAN ANTON"eko ZUBIA .....(bilbao, 1800'an)
- "URIBARRI" BASERRIA.....(Aramaiona)
- "BALTZOLA"ko BASELIZA..... (Dima)
- "SAN ESTEBAN" ELEIZEA.....(Karrantza)
- "BATZAR - NAGUSIEN" ETXEA...(Gernika)
- "OLAKOAGA"ko TORRETXEA .... (Gueñes)
- JAURETXEA..... (Axpe-Marzana)

Erakusketa onek erakusten dausku zelan norberaren erria, auzoa edo baseliza, naiz eta txikia izan arren, gauza (ta ona gañera) dala Belen bat egiteko. Orretarako, euzko-biotza ta irudimen apur bat baño ez dala bear.

#### Santiago Deunaren Eleiz Nagusikoa

Azkenez eldu gara Bilbao'ko BELENDARREN erakuspen nagusira.

Oneik (Belendarrak), euren oiturea dan lez, BELEN'en erakusketa ederra, Bilbao'ko SANTIAGO DEUNAREN ATERPE GOTIKOAN egiten dabe. Eta aurten be olantxe izango da.

Emen aurkituko doguzan Belenak "Palestina" lurraldeko kutsua dakarskue, ango ingurutako zioakaz egiñak diralako. Ikusiko doguzan zioak oneixek dira:

- 1, ESKONTZA
- 2, IRAGARKUNDEA
- 3, IKERKUNDEA
- 4, AGINDUA
- 5, IZENDATUTZEA
- 6, OSTATU BILIA
- 7, BELEN'EN JAIOTZA
- 8, ARTZAÑAIIRAGARPENA
- 9, ERREGENA
- 10, ELIZ - AGERPENA
- 11, HERODES eta ERREGEAK
- 12, EGIPTO'ra IGESKA
- 13, ERRUBAKO UME DEUNAK
- 14, SORTALDERA BIURKETA
- 15, NAZARET'eko LAN-TOKIA

Aitatu doguzan zioak, urte guztikoak dirala baten batek esango dau ta egia da, baña beste urteko irudi ez-bardiñakaz egiñak izango dira; orregaitik beti gauza ez-bardiñak aurkitzen doguz eta olan geure Josu-Umea jαιο zan denporako zerak obeto ulertuko doguz.

Ori dala-ta, alegindu gaitezana Belenok ikustera joaten eta etxaku damutuko, eurek daroen mezua gero ta sakonago ulertuko dogulako.

Eta ez itxi zuen semetxoak BELENAK ikusten eroan barik. Gabonetako Jai Ederrenetan betetzen daben utsunea gero, euren bizitza osoan, aitzu barik eukiko dabelako.

Eta beste barik Gabon-Jaiak alaitasunez igaro daizuezala, Urte-Barri Zoriontsu bategaz osotuta, biotz-biotzez opa dautzue.

Egileor'tar Jon'ek

OARRA.— Idazki onetan agertzen diran argazkiak, SANTIAGO DEUNAREN aterpean beste urteetan egin-dako BELEN-zio batzuenak dira.

## EUSKEREA IKASI ETA EGIN

Lengo egunean, Euskal-Telebistako bigarren katea ikusten nengoala, mai-inguru edo bazkalondoko kafe-artzeko egotaldi bat ikustea suertatu jatan.

Zoritxarrez ia amaitzen egoan egitaraua ni ikustera jarri nintzanean, orregaitik erabillen gaiari buruz gauza txiki batez baiño ez nintzan jabetu aal izan. gauza txikia izan zan bai, baiña ni erne jartzera beartu ninduana nunbait.

Auxe berau da nik entzuna: "La destrucción de la sintaxis". Mai-inguru au idazle euskaldun eta erdeldunen artean egiña zan eta leen esandako esaldia euskeraren eta erderaren idazteari buruz esana zan.

\*\*\*

Ez dot orduxetik onetaz besterik entzun, baiña adi nago ia beste onelako alkarrizketaren bat entzun eta ikusi aal izaten dodan barriro.

Euskerea dala-ta zertzuk jazo diran dakidalako, eta beste jazotako gertaerak jakiñik, baleiteke ni aspaldi danetik ortik-emendik euskerari buruz, batezbe bizkaiera dala-ta irakurri eta entzun izan dodazan astokeriak, eta oneri geitzen badeutsagu zelako euskera mota irakasten dan ikastola edo bateko eta besteko ikasgeletan.

Orain auxe berau bakarrik faltatzen jat: norberak pentsatu izandakoaren baieztatze eta ziurtatze au, komunikabi-deetan azaltzea. Au da, euskal joskeraren birrintzea egiten ari dalaren barria entzutea.

\*\*\*

Bai, benetan auxe ber-bera da aspalditik ikusten izan dana euskera barri onen arlo guztietan, aitzu barik eleberri edo nobela barri orrexen joskera biurria edo aldatua.

Azkeneko oarra, eleberriok dirala-ta, kontutan artzekoa da, ikasleak ikasgeletan irakurteko, lantzeko eta bertatik laburpenak egiteko gai baitira.

Egia esateko, nik orain bertan semea daukat, "euskera" barri on ikasten jo ta ke dabillena; ez daigun ba, esan danetarikoa ikasteko alegiñik egiten ez dogunik.

Beraz, bide orretatik dakit azkeneko barria euskerari buruz; au da, euskerea galtzeko zorian dagola, euskaldunik -bearbada bizkaitarrok- edo euskeraz dakigunok, beintzat, euskerarik erabiltzen ez dogulako.

Ba-leiteke au egi osoa izatea edo baita erdiz-erdi egia ezatea.

Baiña zelan gaitzetsi leiteke iñor debekaturik dagoan eta izan dan izkuntza edo berbeta bat ez erabiltzeagaitik, batez be onelako egoerean ikastoletatik umeak etorrita gurasoak ixildu bear ba dira.

\*\*\*

Dana dala ez dot uste bizkaitarren erruz izan daitekenik, euskera darabillen bizkaitarrak lau katu dira-ta.

Beintzat olakoa zan Izkuntza-Eskolako irakasleren

baten eritxia, orain gitxi dala klaseetara joatean ikasleai "Lau Katu"aren ipuifia idatziago egiten eutsenean, bere gaia bizkaierataz zalarik, jakiña

Leen esandakoari eutsiz, esan daigun eziña dala lau katuk ezetariko ondorenik sortuazo egin dagienik.

Orain be, irakasleak ikasle artean antzeko eritxiak zabaltzen dabezala esan geinke, Bizkaiko lurraldeak kanpo-tarrakaz muga larregi daukazalako, zein ostopo, eragozpen edo meriturik Bizkaiko izkuntzari emon edo kendu egin ete deutson esan barik, norberaren errua ba'litz bezela, edo-ta zelako edo alako neurriak jarri bear ete ziran esateke.

x\*\*

Elduen edo nagusien eskoletara doazen gazteak bere, "euskaldun zarrak" dirala-ta, (oraindiño be badagoz antza) "bajatu" eta olakoak diñozelako, bildututa, izaturik daukez.

Bilbon, euskerea lantzen edo gramatikaren bidez ikasten asten diranen artekoak, asko dira Bizkaiko baserrietatik Bilbora lan egitera joanda dagozenak, eta jakiña, maixuak, ez dira ausartzen eurak baiño euskerea ohea darabilela esaten.

Baiña "demokrazia" baten eritxiak emoteko, danak eskubide bardiñaren jabe ba'dira, gure bizkaiera izkuntzarik bikaiñena dala autortu-bearra dogu eta gure asabakandik artu dogun lekukoa edo ikurra edo dana-dalakoa, ondo baiño obeto gorde dogula eta obeto gordeko gendula aal izan bagendu, au da, guru irakasleak bazterturik eta Bizkaiko ereduian idazten daben Euskalerriko idazlerik onenak mexpreziaturik eta gauza ez balira lez gitxietsiak izan ez balira on be esan bearrean aurkitzen gara, nunbait.

\*\*\*

Orain ibilli dira umeen eskoletan auteskundeak egiten autarkiak emoteko, nazionaletan egon ala pribatuko sareetan gelditzeko aukerea artu-bearrait.

Zelan jakin nun egotea dan onena, dana politika utsa bada eta une batetik bestera agintarien araberez izkuntzaren legeak aldatzen ba'dira?

Eskola Nazionaletan, bagillean, euskerazko ikasturtea amaitzen daben 6-7 urteko umeak ez dabe jakiten iraillean asiko diran klaseetan euskerazko ala erderazko andereñoa izango daben, au da, 3-4 urtetatik oiñarrizturik izan daben euskerazko eziketa lan guztia alperrikako lana izango danik.

Baiña badakigu au beste izeneko ipuin bat dala; politikaren eragiña.

LARRONDO

# ANTONIO TRUEBA'ren IPUINAK

(I Atala)

Izena: Antonio Trueba'ren ipuiñak  
 Idazlea: Antonio Trueba  
 Itzultzailea: Otazua ta Asua'tar Benito.  
 Argitaratzailea: Errekalde'ko Lagun -Artea, Kultur-Taldea.  
 Diru-Laguntzailea: Bilbao'ko Udala.  
 Urtea: Ez dago.

## ENKARTERRIA

Bizkaia'k errialde lez, gaur beintzat, ba-dauko batasuna, baiña baita alderdi bereziak be: Euskera egiten dan leketan ez dira bardiñak Txori-Erria ta Arratia edo Durango-aldea, baiña alderik aundiena euskera jakiteak eta ez jakiteak sortzen dau. Zelako esker ona agertu bear dautsegun Bilbao'n, inguruetan eta Enkarterria'n euskera ikasten eta berba egiten alegintzen diranai!

Baiña, zori txarrez, gitxien alkar ezagutzen garan Bizkaia'ren zati bi Enkarterria ta euskera egiten dogun alderdia gara.

Kondairan sarritan alkartuta izan gara, ordezkariak Gernika'ko zugazpean batera genduzala, naizta indar aundia izan Abellaneda'ko batzarrak, izadia bera be antzekoa dogu: Mendiak, zugatzak, orlegitasuna, gazteluak, etxeak eta abar.

Ba-dakigu Enkarterrian eta emen Erdi-Aroan ebiltzan jauntxoak alkarregaz zer-ikusia eukela. Ikusi Gartzia Salazar'en "Bienandanzas..." liburua.

Baiña on ta guzti be urrintasun mingarri bat agiri da or.

## TRUEBA'tar ANTON

Idazle au ospetsua dogu Enkarterria'n eta mundu guztian. Galdamez'eko Montellano'n jaio zan eta Sopuerta'n bizi.

Erderaz idatzi eban eta geienbat Madrid'en bizi be izan zan, baiña benetako euskalduna dogu.

Zelako idazlea zan?

Bitariko eritxia aurkitu dot nik. Batzuk "Anton el de lo Cantares" esaten eutsoen eta here idaztiak barru-miñez beterikoak zirala iñoen. Oneik ez eutsoen garrantzi aundirik emoten idazle lez. Eretxi on agertzen ebanak, jakiña España'tarrak ziran. Beste batzuk ostera gorengo maillan jarten eban idazle lez, erromatiku eta errealismu-giroaren barruan.

## ITZULPENA

"Antonio Trueba bizkaitar gizon idazle ospetsua, milla zortzireun eta emeretziko lotazillaren lauan, Gabon-Egunean, Enkarterriko Galdames erritxuan, Montellano deritxon auzunean jaio zan", diño itzultzaileak, eta "Trueba'tar Anton izan da munduan Enkarterriaren izena ezagutzen emon dauana" diño beste leku baten.

Otazua ta Asua'tar Benito, Bilbao'n bizi dana dogu itzultzaile. Bere lana dogu ba ia 200 orrialde dituan liburu barri au. Bejoakoz berari gure zorion-agurra eta esker ona.

Ez dogu oraindiño izan liburu osoa irakurteko astirik, eta irakurketa amaitzen dogunean egingo dautsagu, bear ba;da, azterpen sakonago bat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.

## ANTONIO TRUEBAREN IPUIÑAK I ATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

I:RRI-K 1.1,DP,KO LAGCN RTF.A Kri.IIK TAL.Dt:A

uu.ISOKO t UAL.- KEN DIRr I.AGI'NT"zAX ARGITARATT'A



---

## EUSKALDUNAK, EUSKALDUN!

---

Izkuntzak, Erriak, Etniak, Naziñoak azken baten, bereizi eta lotu be egiten dabez. Euskalerrria euskerearen inguruan sortu zan. Euskaldunen Erria! Euskereak, berak, beraz euskaldun egiten gauz, ez besterik! Geurean lez, beste munduko errietan be.

Gaur egun inguratzen gauzan industri-mundu au gero ta aurreragora doanean, euskereak, gure izkuntzak, gizarte aurreratu onetako arlo, bazter, txoko guztietara eltzen alegin aundiak egiten dauzanean, bere etxea, bere abia, bere betiko babestokia, arean da, EUSKALDUNEN AGOMINAK galtzen ei dauz.

Lenago, urte asko ez dirala, euskerea, zabaldu eiten ainbeste bide ez eukanean, euskaldunen agorrik ago, minik min, parra-parra, txori bizkor, osasuntsu baten antzera egiten zan, gure gorputzaren atal bat izanik. Gure eguneroko edozein artuemonetarako erabillia: Maitatzeko erabillia, bear egiteko erabillia, eztabaidatzeko erabillia, lagunartean erabillia, bear egiteko erabillia, otoitz egiteko erabillia, madarikatzeke erabillia, goratzeko erabillia, olgetako erabillia...

Gure izakerearen, euskaldunen izakerearen bide erakuslea, bide-argia. Gure berezko nortasunaren, euskaldunenaren ezaugarriarik garrantzitsuena. Naziño ezaugarriarik sendoena.

Orain, barriz, euskalduna euskereaz aztu egin da. Inguruko erderetara jotea jako errezago, gogo-koago. Tamalgarria benetan. Negargarria. Gaurko

euskaldun elduak, amaren bularrarengandik ain kontu aundiz irakatsitako adierazpide dan gure euskereari uko eginez eta erderara jotez, kalte aundia egiten dautso euskerearen etorkizunari. Onen ondorenez, euskal umeek ez dabe, ezta neba-arreben artean, berbarik be euskeraz egiten. Ez da gure umeen artean euskerarik entzuten. Ez kalean, ezta baserrian be. Euren nagusien ardurabakoke-riagaitik. (Umeak zer ikusi, a ikasi).

Batek baiño geiagok euskerea ikastoletan, eskoletan irakatsi eta ikasten dala uste daike, eta alantxe da, baiña, jakin bear dan gauza bat lez, bein klaseak amaituta, euren bizitzan baliorik ez daukan gauza baten antzera. Ez da erabilten, ez da egiten.

Bein, batek esan eban:

"Euskerea ez da ilko ez dakienek ez dabelako ikasten, dakienek, EUSKALDUNEK, ez dabelako egiten, baiño".

Egi biribil-biribila.

EUSKALDUNA! Zuk zeuk aldatu bear dozu euskerearenganako zeure jarrerea, jokabidea.

Aldatu eizu, bada, euskerearen aide! Bere onerako.

Ez da dirurik bear, EGIN egitea, baiño. Zagozan toki guztietan. Zure etxetik asita.

Atara eizu zure euskerea daukazun egoera larri orretatik. Besterik ez!

Bakion, 1990.eko Jorrailaren 8an  
IÑAKI MARTIARTU

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---



**Eusko Jaurlaritzaren**  
**Laguntzaz.**  
Kultura Saila

## ZER...

Goizean goiz, etxeko leioak zabaldu ta ze aize mueta artzen dabe zudurrak... zer ikusten dabe gegiak... zer soiñu-zarata artzen dabe belarriak...? Atsedenez aurkitzen al dira zentzunak...? Ta zer diño giza-semearen almen nagusienak "gogoak...?"

Bakea, bardintasuna, anaitasuna, askatasuna nai, ta kateiz betarik dagoela dirudi inguruko arnas-aize guztia... Giza-semearen bizia, alderdi guztietatik, estu, inguratuta dago gizakerien ota ta larrez. Gizontasuna dalakoan, itxurazko arpegiaz, norberia ta nauskeria dabilbaz bazter guztiak atsiptetu nairik. Beti, norberari begira, bizitzako zuzentasun oiñarriak, gogor, zapaldurik.

\*\*\*

Arrokeria bizitzaren ezpatea ba'da, apaltasuna biziaren ardatz joria da. Baiña giza-semea "apaltasun" izenagaz lotsatu egiten da. Ta ortik datoz, lurtean ikusten ditugun nauskeri, zapaltze, guda, alkartu-ezin guztiak.

Neuk nai dodana egin neike neure begiagaz diño, ta ortik datoz droga, gaiso ta eriotza mingarriak. Gaiztakeria berbera, gozamina gaitik, ontzat, artzen da, ta ondoren, berez, datoz negarra ta eriotza... Arrokeriagaitik bestea zapaltzea, on erizten da, ta orrek jarraian dakar gizartearen banatzea ta zorigaiztoko burruka...

Aizea dabil aidean, aize bat dabil munduan, besteak zapaldua ikusi ezker, puztu eta arrotu egiten dana, ta orrek dakar gizartearen samiña ta eriotz galgarria. Beraz, arrokeria, berez, ez da errezoizkoa, burn-bide zuzenezkoa.

Mindu egiten dan bizia ta personea ez da ortarako sortua. Giza-semearen elburua da bakezko zoria, anaitasun, bardintasun ta askatasunean oiñarriturik.

\*\*\*

Egille baten semeak, izan bere, iru filosofizko edo jakintzazko berba orretan oiñarrituta egon bear leuke... Ta arrokeria biziaren etsaia dala, ikusi dogun ezker, apaltasunak alkartu ta zuzendu bear ditu bizitzaren ardura ta elburuak.

Apaltasun berberaren senagaz ez zaitez bildurtu. Gure erriak seme-alaba asko izan ditu apaltasunez zuzenak eta indartsuak ta erriari, bear dan argitasunezko bizia emoten alegindu izan direnak.

Apala ta totoa ez dira bardiñak. Apalak dauka bere izen ta izatea. Beti, ixilik egon ta arroen ta norberakoen jopu edo esklabo izatea ez da apalaren zeregiña. Apala beste gauza bat da; bizitzeari bere senean jarraitzen deutsona; apala egi-zalea da ta zuzentasunez gizartearen zeregiñak betetu nai ditua, bata bestearen ezkubideak ontzat arturik.

\*\*\*

Zuzentasunaren izenean lan egin ta nekea bere lepo-gain artzen dauana, apala da. Au da gizadi minduak bere laguntzailetzat egiz, artu nai dauan gizona.

Arroak ez dan nai kargarik, ta gitxiago. Mori laguntzeko astuntasunik; apala da iñoren izenean kargea artu ta aurrera doana. Gizon apala ez da lotsatuten anaiari laguntzen. Apalak ezin dan ikusi negarrez anaia eta zapaldua be ez bere anaien etxea...

Kristiñau legez begiraturik, Andra Maria apala izan zan, Jaungoikoaren ama izatea onartuz... "Ona emen, zure mirabea, egin bedi nigan zure borondatea" Ondoren etorri eikiozan neke ta samin guztiekin artu eban Jesusen ama izatea. Ta guztia zan Semearen

bidez gizadiari bardintasuna, anaitasuna ta askatasuna lortzea... Ori da andra apala. Ori da egizko apaltasuna.

Nauskeri ta norberakeri barik egin bear dana egitea, apaltasuna da. Euzkotar gizon ta andra zintzoak, olantxe, jokatu dabe, ta apalak izateaz ez dira lotsatu. Apaltasuna, egia ta gizatasuna, berez, dagoz alkarri, ongi naiez, lotuta. Besarkada jakiturizkoa ta ederra da.

\*\*\*

Ebanjelioaren apaltasuna, egi ta zuzentasun utsa danez, jopukeri ta zapaltzearen, aurrez aurre, egon da beti. Bakotzak bere egin-bearrak, zentzunez, betetea, apaltasuna da. Ta gizadian zergaitik baztertzen ete da egiaren indarrez zaindu nai dan apaltasun berbea...?

Zentzundun persona ta kristauen artean bata besteari lagundu bear deutsela ezagutzea, ta ondoren, eginkizun ori betetutea, apaltasuna da. Apaltasun ederra da, batez bere, Jaungoikoa ta lagunak bear ditugula mundu onetan ezagutzea lenen-lenengo Egillearen laguntza bear-bearrekoa dogu, ta onen ondoren inguruko lagunaren laguntza barik ezin bizi giñaike. Norbere gogo, indar ta jakituria ez dira naiko gure izatearen bear-izanei laguntzeko.

Ta ori bear dan lez ezagutu ta onartzea, apaltasuna da. Gure almenak noriño eldu leitekezan, genre Egillea ta inguruko lagunaren laguntza ezagutu ta onartzea, apaltasuna da.

\*\*\*

Bear izanean minberatuta dagonean, urko lagunari laguntzea, apaltasuna da; ez-eukiak, bear-izanean dagonean, anaiak ezkeintzen deutson laguntza onartzea, apaltasuna da.

Beartsuen erakunde bateko zuzendari ez-nai izatea, arrokeri ezaugarri da, apaltasunik-eza da. Iñoz ta iñun, laguntza bear ba'da, ordu orretan agertzen dan gizonak gizonarenganako anaitasuna ta or, agertuko ditu ongillezko gauzarik aundienak; maitasuna, apaltasuna ta borondate ongillea. Serbitzea da apaltasuna.

Norbere burua aunditatzat eukitea, arrokeri aundia da. Norbere burua dan baiño gitxiagotzat euki ta miñean ori, sari, erabilteak, ez dan apaltasun larregirik agertzen. Gauza bi oneik ertzekoia dira, ta bata-besteari ikutzen, alkarren lagun egiten dira. Ez dira onak, ez ederrak, ez apalak.

\*\*\*

Jauntxoia izan nai dauanak, bere gurarietan aize putsak daroaz eta ez dauka apaltasunik. Onek jendea bere ingurutik uxatu egiten dan. Etxe, miña, mendi ta zelai beretzat nai ditu, eta ingurukoak traba egiten deutsoe. Emen ez dagola dirudi ez gizatasunik, ez anaiarik, ez apaltasunik...

Apala izatea zer dan jakin ta apaltasunean bizi nai dauanak, anaitasun giroko bizitza ederra izango dan ta norberari dagokion eran, bizitza egingo dan. Dan baiño ez geiago ta ez gitxiagotzat bere burua artzen dauanak, zuertasun aundia dauko ta gizartearentzat izaki mesedegarria izango da. Persona apala da...

Munduko gosete, guda ta zapaltzeak zer eskatzen dabe...? Arroak ala apalak zuzendu bear ete ditu arazo aundi onek?

PAULIN

## ELIAS OLAZAR MURUAGA

### PASIOTARRA



#### Arrieta

Erri eder bat goratu nai dot  
Arrieta dau izena,  
Sollube mendi gallur gaiñetik  
seme bikaiñen omena.  
Kristau elizan, Euskal errian  
izan dabe garaipena;  
errien aide jokatutzea  
jokabiderik onena.

Erri-txaloa irabaztea ez da gauza erreza. Ortarako biderik egokiena "errien aide jokatutzea". Giza- semeen baliotasuna ontzat eta aintzat artzen ondo baño obeto daki gure erriak. Gai ontan ez da oker eta zurikeriz ibilliko. "Ori da gizona", esan oi da gure artean. Egizko gizatasuna, arrokerian eta aundikerian barik, erriaren aide egiten diran on-egiñetan begiz joten da. Ez da, ba, arritzekoa onako gizonak Euskal errian ezezik, mundu zabalean be aintza ta omena irabaztea.

Arrieta erriak, gizaldi ontan, Euskal erriari, Elizari eta Peru laterriari, gizon ospetsu bat emon dautso: Gregorio Elias Olazar Muruaga, gotzaiña.

#### GORABIDEA

Ume baten jaiotz eguna, bai dala zoragarria! Zoragarriago, Egu-berrietan jaiotzea. Gregorio Olazar'en jaiotzak pozez eta zorionez bete eban bere sendia, Arrieta'ko baserri baten, Gabon aurregunean. (1912, abenduak 24).

Jaunaren deia eta gazte baten leia bat egitean, urregorrik etorkizuna zabaltzen da bizibidean. Gregorio mutikoa, Jaunaren deiak bultzaturik, Gabiria'ko Pasiotarren ikastetxera doakigu. Antxe jantziko dau bere burua irakaste zuzen eta argiak. Eliz-ikasteak amaiturik Deustu'n apaiztuko da. (1935)

Gaurdanik gora Elias aitak agirian ezarri bearke dau jatorriz dakarren ekarri ona eta joria. Emen asten da bere gorabidea. Erroma'n, Angelicum Ikastetxe Nagusian, egingo ditu Teologia goi-ikasteak. Ikasaldia amaiturik Erroma'ko gure etxean, eta geroago Deustu'n, Teologia jakintzan, berebiziko maixutasuna adierazoko dau. Emen izan neban nik bere ikasle izateko zoria eta zoriona.

Sasoi ontan sortu zan España'n Ikas-alkarte bat Andra

Maria'ri buruzko ikasteak egiteko burubideaz. Au poza, Elias'ena! Oraintxe bai aukerarik oberena Andra Maria'ri dautson maitasuna agertzeko. Idaz-lan jakintsuak argitaratu zituan aldizkarietan.

Pasiotarren ikastetxe guztien arduradun izentaturik, biotz beroz alegindu zan gazteen aziera eta ezi-arauak erabarrizteko. Berak erabagi eta eraginda sortu zan ikasleen arteko Horizontes aldizkaria.

Zazpi urteburuan Redencion aldizkariaren zuzendaria izan zan. Idazlari ona ta argia zan, benetan, eta erri-giroan azaldu ebazan erlijio-gaiak. Bere gorabideak ez dau etenik izango: Gure Probintziko gorengo aukietan konsultore izanik ikasgaiak eta beste goraberak zuzenbidetik eroan zituan.

Bere buruaren argitasuna, egitekoak ondo egiteko gaitasuna, eliz-arazoetan jokabide ezin ohea, eta... ara or ba, Gotzaiñ izateko eliz-deia.

#### AZIA EREIN

Berrogei urte bete-beteak ditu Elias aitak. Bere bizitzako sasoirik ederrena. Eliz-gizon zuzen eta prestua da. Yurimaguas Mixioetarako gotzain izendapena arturik, Begoña'ko santutegian artzen dau Elizaren eta Andra Maria'ren onespena. (1953, jorriaillak 12). Bere ikur itza, auxe: "Ara or zure Ama".

Amazonas aldeko baso zabaletara elduta, zer? Iratzaderrre'k, itxasoari begira: "Oi, itxaso zabalaren / zabalaren zabalera". Emen, Elias Gotzaiñak esan bearke dau: "Oi, baso zabalaren / zabalaren zabalera". Ba'da lurralde onetan zer ikusi eta zer ikasi. Zer egiñ? Orañi arteko liburuak aide batera itzirik, beste liburu baten murgildu bearke dau bere burua. Libururik ikasgarriena: erriaren izakera, bizikera, nekaldia ta gurutzea. Liburu ontan ikasgai onexek ikasiko ditu: "Ez dala egoki erriaren izakera, nortasuna eta oiturak ontzat ez artzea". "Siniskeria eta sinismen-eza ez dirala kentzen dotriña uler-gaitzakin, Kristo'ren maitasunaz eta Andra Maria'ren bi-tartez baño". "Kristo'ren izena ta Barri Ona erein bear dala biotz guztietan. Kristo bera da, izan be, azirik onena". Ortarako gogoz jokatuko dau, batez be, irrati bidez, Yurimaguas eta Lima uriburuan. Azi-ereile bikaiña izan zan Elias Gotzaiña. Uzta-aldia oparotsua izan dedilla.

Bere oroigarrik onena? "Kristo'ren eta erriaren aide jokatutzea, jokabiderik onena".

URIGUEN'TAR ZENON

## GIZARTE AUZIA

Aspaldi ontan, ekonomizko larri-une krisi-aldia dala-ta, Madrid'eko Jaurlaritzak, langilleen eta ugazabaen ordezkariak, estu ta larri ari dira batzar eta itzaldietan, alegiñak egiten gizarte-itzarmen bat lortzeko.

Ugaritasuna dagonean be, politikan ez da erreza batera etortzea, naizta danori pozteko aña izan. Baiña urritasun-aldian eragozpen ia-ia gainditu eziñezkoak sortzen diran-ekero, eztabaida ta borroka larregi izaten dira.

Euskaldun esaera zar batek zera diño: "Dagonean, bon-bon, eztagonean, egon".

Ez dakit benetako ugaritasun iñoiz izan danik, baiña ba-dirudi agintariak egia izango ba'litz bezela jokatu dabela.

España'ko Jaurlaritzaren buruzagia dan Gonzalez jaunari, oso atsegin izan jako Europa zear arropuztuta ibiltzea. Erri-arteko nortasuna zaindu bear dala ta, laterri garrantzi ta aberatsetan, an emenka, agintari aundiaekin artu-emonetan ibilli da. Aspaldi ontan bere ametsa España'ren auropatasuna goratzea izan da.

Bitartean Sevilla'ko Erakusketa-92, Barzelona'ko Olinpi-jolasak ta beste arazoetako bonbonkeriakaz erri-altxorra ondatzen.

Dana dala, ukatu eziñezkoa da arduradunak, gizarte arlo batzuetan, esku-zabala baiño ondatzaille izan dirala. Danok dakigu, nabari da ta, sarritan gertatzen izan dala izkutuko lanean aritu ta langabetu bezela saria jasotzea. Olako langilleak ez dabe gura izaten lanbide lotu bat artu, aide bietatik alogerak eskuratzen dabezan artean, obeto bizi dira-ta.

Oraintsu, egunkarietan sarritan erabiltzen dan auzia ustelkeri edo korrupzioa da. Izan be, politikan aurkako alderdiak beti dagoz gertu arerioen uts eta akatsak salatze-ko ta bearbada geitzeko be bai. Egia edo zurrumurrua izan, naikoa da danok susmoak egin eta marmarka asteko.

Batzuetan zar eta langabetuen sariak ematean lar esku-zabal izan dirala, ta zar-saridunentzako antolatzen diran txangoetan be diru geiegi parrastatzen ei-dala. Ba-dira, on jazoten dala batez be auteskundeetan geiengo lortzen daben tokietan, esaten dabenak. Jakiña, adiskideai pozik bizi daitezcan lagundu bear jake ta, bide batez, autarkiak zaindu. Osakidetzan sendagaiak banatzean ikertze-eza, ta beste arloetan izandako neurrigabekeriak, orain bala-bala dabiltz. Egunkarietan be sarri erabiltzen dan gaia da.

Datorren urterako aurrekontua gertatu bear dala-ta, oizko burruka asi da. Emen sortzen dira korapillo ta nekeak. Ekonomi eta kontu-jakintza edo matematikak bereziko legeak daukez. Lege-Biltzarrean egiten diran itzaldiak ez dira gauza emeko auziak zuzentzeko. Artzen dan dirua ondo banandu ta naikoa ez ba'da, eralketak moztu

edo diru geiengo nundik atara leiteken asmatu bear da: beste biderik ez dago. Azken maillan, etxeko-andra batek illero egiten daun kontua besterik ez da.

Gerrikoa estututea ez jako iñori atsegin eta danok gura izaten dabe besteren lepotik utsegiteak zuzentzea. Jaurlaritzak bere asmoa agertzen dau, baiña beste maikideak beren idazki-zorroetatik txostenak atara ta mai gainean jartzen dabez. Ziurki, danok ontzat artuko daben egitamu bat iñok ez dau eskeiñiko, ta orduan sortzen dira eztabaida ta matrakak.

Betiko buru-austea sarketak edo dirua bear dan aña eza izaten da. Beraz, len aitatu doguzan bide bietatik bata edo bestea aukeratu bear da. Eralketak moztea kirrimarraren etorbide aundia izango litzake; zergak geitzea barriz erri-iguiñeko da ta, onezaz gainera, zergak beren aunditu eziñezko naurriak edo mugak daukez.

Dana dala, iru taldeen ordezkariak ille bitan egin dabezan batzar-aldietan ez dira batera etorri. Bai Jaurlaritzak, bai langilleen eta ugazabaen ordezkariak, beren asmo-agertzeak adoretzu eutsi egin dabez, danontzako erabaki on bat artu eziñik.

Langilleen alkartasunak edo sindikatuak, zar-saridun- en sariak eta langabetuak jasoten daben diru-laguntza erosteko almena gutxitu ez daitezcan, etsi-etsian zaintzen ari izan dira.

Madrid'eko Jaurlaritzaren lenengo asmoa, beste baldintzen artean, sariak neurritzea zan; eta orretarako urtero sal-neurrien goratze araberean sariak be goratu bear leukiezan baiño %2 gutxiago goratu. Olan iru urte barru sariak, ekonomizko egoera onerako, %6 galduko lekie.

Langilleak orrelako nekea beren lepora artzea legezko ez zala-ta, sindikatuak ez eben onartu. Asko eztabaidatu ta gero, gai onetan eta bestetan be iñolako urreratze itxura ez egoan-ekero, ez ziran batera etorri ta ain onuragarri izan leitekean giza-itzarmenak porrot egin eban.

Baraz, langille ta langabetuen sari auzia, lan-arreman- en araubideak barriztea, irabazteen-itzarmena, ta beste onelako gaiak atzeratuta geratu ziran.

Ondiño izketak barriztu leikez, baiña epe barruan. Zuzenketak ille onetan (Urrilla) 25'gn baiño lenago aurkeztu bear dabez; Goilege-Batzarra edo Senatura eroan, ta urtea amaitu baiño len barriro Lege-Batzarrera bialdu, egokia ba'da, onartzeko.

Bestalde oraingoan PSOE'k, leen bezela, Lege-Batzar- rrean geiengo-osoan ez daukonezkero, beste alderdien laguntza bear dau aurrekontua onartzeko. Or dabilz eusko ta katalan abertzalekin (EAJ eta CiU) artu-emonetan.

Azkenean, zer gertatuko ete da? Ikusiko dogu.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

---

## PLAZARA ETA MUNDURA

---

### *Euskera Euskera Jalgi Hadi Mundura*

*Bernat Etxetepare*

Euskeraren aldeko burruka aspaldikoa dana ez dago esan-bearrik.

Geure-geurea dan izkuntza zabaltzen eta erabiltzen egin dan lana ere, ukatu ezina da.

Tamalgarriz, batzutan indar geiago erabili dogu euskaldunen arteko burrukak konpontzen, kanpoko erdera garaitzen baino: Gipuzkoera zala, bizkaiera zala, batua zala, burruka orretan sartuta egon dira bere Iparra galdu dabenak, etsaiz erratu diranak.

Euskera beste era batera, erratua edo ez erratua, zabaldu gura izan dabenak artu dabez areriotzat.

Dana dala, batzuk eta besteak argi euki dabe zeozer egin bear zala euskeraren aide.

"Patxikoren" sasoiari, ixilekoa, emaitza gitxi (naiz eta oso atsegingarriak) eta belarri ondoko askotakoa izan zan.

Gizon on beste mundua ezagutzera joan zanean, danok geratu giñan itxaropen leiora begira, orduan urbilago ikusten genduan leio or...

Etorri ziran aldaketa politikoak, askatasun barriak (askatasun eta astakeri barriak), euskeraz inork debekatu bank berba egiteko aukerak, euskeraren aldeko ekitaldi nagusiak...

Egoera zeozer aldatu zan, baina oraindik euskera une larriak jasaten egoan.

\*\*\*

Kinka larri orretan, euskeraren lerketa, "bum-a" sortu zan. Erdi ixilpeko ikastola txikiak, eraikin aundiko eskolak biurtu ziran. Euskaltegiak edonon, udazkeneko perretxikoak bezela. Euskera irakasteko metodoak, iztegi eta abarrekoak, ia euskaltegiak beste agertu ziran. Euskera ikastea "moda" biurtu zan: Izena emoterakoan ilera itzelak egiten ziran, euskera ikas -

teko lekuak jendez gainezka aurkitzen ziran, ia toki barik.

Umeez euskera ikasi bear ebela eta, ikastolara, eta nagusiak ondo ikusita egoalako, eta batez ere lana bilatzerakoan puntuak zirelako (eta direlako) euskaltegiatara.

Onegaz ez dot esan gura danak zirenik orrelakoak, modak edo /eta interesak bultzatuak; ainbat izan ziran euren euskaltasunak edo /eta abertzaletasunak sakatuta euskera ikasten eta zabaltzen ailegindu zirenak.

Baina modak moda, badirudi sukarra jaitsi dala.

Ikastoletatik euskeraz ikasitako belaunaldi pare batek urten dau, komunikabideetan euskera geiago entzuten da, eskola publikoetan ere euskera eta euskeraz irakasten da (Arraioa! nork esan leukean alakorik orain amabost urte), kaleetan ere ez da pekatu (agur) edo (egunon) esatea, eta esan ezkeron edonork entzuten eta erantzuten dau.

Leku ofizialetan be, euskeraz mintzatu zeintez leiatileko beste aldekoagaz. Banketxe, urrutizkin-konpainiak, argi-konpainiak eta abar luze bategaz euki daikezuzan arremonak euskeraz egin daikezuz, are geiago kontutan artzen badogu bialtzen daben propaganda eta barri bustiak, izkuntza bietan bialtzen deuskuezala.

"Iño! Zelango aurrerakadea emon dogun!" esango leuke aititek (eta esaten dabe baikorrenak). "Au martxan zegok!", anai gipuzkoarrak dinoanez.

Euskerari oztopoak jartzeko sasoiari istoriaurreko Arri Aroa dirudi, Erdi Aroko gauza goitik jota!, birraititaren gauzak.

Badirudi dana dagoela asmatuta, eginda, lekututa, ondo lotuta, baina...

\*\*\*

## EUSKERA

Baina ez! Askok dago oraindik egiteko. Eta batzuk eginaren eginez, ekinean dabilz euskeraren aide: Ikastolentzat dirua biltzen (Ibilaldia, Nafarroa oinez...), irakasteko metodo barriak sortzen eta ataritzen, liburu, iztegi e.a. argitaratzen, zelan edo olan etxe onetako ormak altxatu gurean.

Egia esateko, onetariko batzuk interesak bultzatuta dabilz lanotan, euskerean eta abertzaletasunean dirua lortzeko bide bat aurkitu dabelako; baina beste asko interes bank, eta sarritan dirua, denporea eta gustoagokoak dabezan gauza asko galduta, ekinean diardue.

Oneek sukarra goian eutsi nai dabe, euskerea moda bat baino geiago dala erakutsiz.

Gure izkuntzak ofizialtasuna ei dauka, gazte-lak besteko maila ei dauka. Bai zera! Niretzat kaleetan gaztelera beste euskera entzuten danean, orduan, eta orduan bakarrik izango dabe izkera biak maila bardina.

Onetan ez dau balio "Astea, erdia eginda eukitea da" esateak.

Emen ezin dira gauzak erdizka itzi, bestela teiatu bako etxearen antzerakoa izango litzateke; ormak, sukaldea, logela, danak oso ondo apainduta baina euria eta aizea edonondik sartzen.

Etxearen oinarriak ipini doguzan arren, ainbat lan dago egiteko, zugaitza teiatuko gailurrean ipini eta monjorra jan baino len

\*\*\*

Asierako berotasuna oztu egin dana argi dago.

Euskaltegietan geroago eta jende gitxiago, euskera edo euskeraz irakasten daben erakundeentzat dirua lortzeko ekitaldietatik aparte, ez da beste kanpainiarik egiten.

Erakunde ofizialak ere geroago eta diru gitxiago dauke gure izkuntzarentzat (zoritzarreko krisia onetaraino eldu da) eta kaleetan lengo beste euskera entzuten da.

Ez ete dauke euskeraz ikasten daben umeen guraso erdeldunak euskera ikasi bearrik? Ez ete dogu euskeraz berbetako eskubiderik edozein eratako leiatiletan dakianari (balego) itxaroten egon barik? Ez ete dabe gure agintariak eredu izan eta euskera ikasi bearrik?

Egia esan batzuk bai ei dabilz zeregin onetan, baina inoiz ez dabenez egiten (lotsa ala?) ez daki-

gu ezer aurreratu daben. Jaunok! euskerea ez dogu aurrera atarako ez dakit nori eta ez dakit zertarako dirua emonez (eta orain gitxi dagoenez on ere ez), euskeraz, gure izkuntza onetan berba eginez baino, baina orretarako...

\*\*\*

Urte batzuk direla "pegatinen" sasoa izan zan. Dana zan "pegatina".

Onen aide, beste orren aurka, andikoagaz batera edo aragoko barik genbilzala adierazteko "pegatina" bat bear zan.

Gaur, ostera, "pegatinen" orde margo desberdinetako txilibista edo "lazuak" eroaten dira paparean: Gorria SIDAren aurka, urdina Julio askatzeko zan, orlegia berriz ordaindu eian, or nonbait larrosa ere atara eben ez dakit nongo abadea ez aldatzeko eleizaz.

Guk ere orretarikoren bat bear ete dogu euskera benetako izkuntza ofiziala izatea gura dogula adierazteko?

Olan bada, bizkortu gaitez, bestela euskerearen aldeko txilibista edo "lazua" atara orduko ez jaku geratuko margorik aukeratzeko.

ENRIKE ITXASALDE

≡ ≡ ≡

# ABERTZALEAK, KARLISTAK ETA SOZIALISTAK

Irakur-buru oneagaz aldizkari onen, 178n zenbakian Arrinda'tar Anes'ek idatzi dauan artikulu bat. Karlisteri dagokionari buruz uts batzuk egin dituan ezkerer, naz zuzentzen.saiatuko.

Leenengoz diño: "Auek (Dios, Patria Fueros Rey) aizken urteetan "Fueros" izena galdua zuten: Dios, Patria, Rey gelditu zitzaizen".

Karlistak ez dogu galdu iñoiz be "Fueros" berbea. Sartu bai.

"Dios, Patria, Rey" zan gure ezagutitza asieran. Au erderaz egiten edo idazten. Euskeraz, ordez, "Jaungoikoa eta Foruak". Nai ta itzulpenak ezbaridñak izan, biok adierazten dabe gauza bera.

Karlista erdeldunak bere aldarrikatuten ebezan beti foruak. Forurik gabe, karlismorik ez. "Patria" berbeak foruren asmoa daroa. Guk ez dogu iduriten patriarik forurik gabe. Ba guretzat "Jendea foruakaz aske bizi dan lurra, auxe da patria".

Karlista batzuk esaten dabe patria ta foruak gauza bat dirala. Neuk patriaren erea foruak dirala esan gurago dot. Jendea eta lurra ordez gaia dira.

Mende onetako asieran karlista batzuk asi ziran "Dios, Patria-Fueros. Rey ipinten". Beste batzuk onelako "Fueros" ipintea ez zala bear uste eben. Patriagaz naikoa zala.

Orregaitikera bietara azaldu zan gure ezagutitza. Bai guda aurrean, gudatean ta gero bere. Nai ta liberal iturburutik etozan frankozalei txarto iruditen jaken. Gaur foruak ain aaztuak diralako, beti ipinten dogu "Fueros". Nai te ez izan bear.

Arrinda jaunak diño: "Patria ere Cadiz'eraño zabaltzen zuten". Au egia da. Zabalduten genduen eta zabalduten dogu. Zergaitik?

Cadiz ondoan Sevilla, uri andi ta ospetsua, dago. Sevilla eraso ebenak, bizkaitar itxasontziak ziran.

Sevilla'ra eldu zan, leenengo bira munduari eginda gero, gipuzkoar bat Elkanoko Juan Sebastian.

Sevillatik zear euskaldun asko Ameriketara urten ziran. Españarrak egon diran Ameriketako lurretan, euskaldunak bere egon dira. Ameriketean españarrak erail, erre, lapurtu... egin eben. Baña zibilizazioa ta kristotasuna eroezan bere. Zuzen ala okerra beste españarrak egin ebena, euskaldunak bere bai.

Sevillatik zear Ameriketatik etorri jakuzan indabak, artoa, tomateak eta dirutza andia. Andik etorritako diruakaz eraiki ziran gaur Bizkaian eta Gipuzkoan doguzan jauregi ta eleiz ederenak.

Cadizeraño Patria zabaldutea Euskalerriko tradizioaren muiñean dago. Ta geuk jarraituten dautsogu tradizioari.

Alderdi gareanez ez gara erdaltzaleak ezta bere euskaltzaleak. Ez dago alderdi euskaltzalerik. Euskeraz egiten eta idazten dauena euskaltzale da. Gaur alderdi guztien idaztiak erderazkoak dira. Gitxi-gitxi euskerazkoak arpegia garbitzeko.

Bere buruari euskaltzaleak deritxoena artu dabe agintaritza.

Eta euskerea atzeratuaz doa. Orain ogei urte dira, eskolatik euskeraz egiten urten eben errietan, gaur urten dabe ikastolatik erderaz egiten. Aoz, danak maite-maite dogu euskerea. Baña egiaz ia danak erderaz egitea gurago dugu.

Neuri dagokidanez, nire alderdia euskaltzalea ez dan ezkerer, beti artega egon naz, euskeraren alde zeozer egin bear dodala. Orregairik asi nintzan ikasten orain urte asko dirala. Denbora aretan, bere burua abertzaleztat euken nire lagun askok, ez eben egin. Debekatua zala esaten eben. Ta areintzat alderdi abertzale baten karneta eukitea naikoa zan.

Gaur zirkulo karlista daukon Bizkaiko erri bakarra Ermua da. Leku aretan alkarrizketa gustiak euskerazkoak dira. Erri bereko batzokian ordez erdera ugari entzuten da.

Gerrateari buruz Arrinda Jauna'k diñoana ez da zeatza. Errepublikaren aurka alako borrokan karlistak gura ebezan abertzaleak bere alboan euki. Naparra ta Araba'ko gazte abertzale batzuk sortu ziran erreketien tertziotan leenengo egunetan. Danei abegi ona egin eutsen. Luzea izango litzake edestutea EAJ askenez nola alkartu zan gorriakin. Gauza bat esan al dot: ordu aretan EAJ ez zan askea aukeratzeko. Gero, nai ta aide berean borrokatu, gorriak ez ziran adiskide onak abertzaleentzat.

Alako gudan karlistak ez ziran altzatu abertzaleak edo sozialistak garbituteko. Alako errepublika, demokratika ez, komunismorako bidea bai, gura eben garbitu. Badakigu bear izango ez litzaken garbiketako egozana. Baña aide bietatik. Orain aide batekoak egin ebenari buruz berba egiten eta idazten da. Bakarrik garailleak egin ebana gomuta izaten da. Baña beste aldekoak are ta geiago egin eben. Ori ixildu egin bear da. Arrinda jaunak dakian lez, Bilbaoko itxas adarreko itxasontzietan gaur ixilduten diran gauza izugarriak jazo ziran.

Amaituteko argituko dautsot Arrinda Jaunari ikurriña ta "Euskadi" berbea aukeratu dituen orrek ez dirala karlistak. Nai ta bere buruari "Euskadiko Karlista Alderdi" izendatu. Ezta bere ez dabe arkitu berriro "Fueros". Oстера, itz au betiko laga dabe.

Eurak diño "socialistas, federalistas y autogestionarios" dirala. Diranik ez dakie. Gutxi-gutxi dira; geuk (Comunión Tradicionalista Carlista) hallo gutxiago. Nai ta geu asko ez garean.

Egien borrobillena diño Arrinda Jaunak au idazten duenean: Karlistak ez ikurriña ezta "Euskadi" berbea ez genduzan onartu. Ez genduzan onartu ta ez dogu onartuko sekulan bere. Ikurriña ta berbea ez dira egon Euskalerriko tradizioan. Ta guk Euskalerriko tradizioa iturburu bakartzat dogu. "Abertzaletasuna, ikurriña, Euskadi Sabino Aranari dagokio Euskera zaletasuna ez; beste askori dagokigu eta berak asmatutako Euzko-Alderdi Jeltzaleari". Ados gagoz Arrinda Jauna. Onela izan dedilla.

IBAÑEZ KARLOS

## N.B.A.: BELAUNALDI BARRIAREN ORDUA

Igaro dan Azillaren 5an asi jakun munduko saski-baloi txapelketarik onenaren denboraldi barri bat: N.B.A.koa, ain zuzen.

Urtero lez, barrikuntza ugari aurkeztuten dauskuz, batez be jokalariei dagokienez, baiña guztien gaiñetik bat oso nabarmena agertzen da: Michael "Air" Jordan-en agurra.

Ondo jakingo dozuenez, aurtengo udan ezezagun batzuk erail eben bere aita eta lendik bere erabakia artua ba eukan be, gertaera orrek eragin aundia izan eban Jordan-engan, aldezturirik agur esateko.

Orain, Jordan-ek saski-baloia bertan-bera itzi ondoren, N.B.A.'k here jokalaririk onenak galdu dauzala esan daiteke. Igazko denboraldian, "Magic" Johnson'ek eta Larry Bird-ek be jokatzeari itzi eutsen-eta.

Dana dalakoa, saski-baloiak aurrera darrai eta N.B.A.'k be bai, jakiña.

Gorago esan dogun lez, jokalaria barriak ikusiko doguz, aurten, ia danak Laterri Batuetako Ikastetxe Nagusietako taldeetatik urtenak. Orrela, Shaquille O,Neal, Larry Johnson, Olajuwon, Karl Malone, Robinson eta beste jokalaria aundi batzukaz batera, Anfernee Hardaway, Shawn Bradley eta Chris Webber-en izenak, besteak beste, izango doguz denboraldi barri onetan. Baita europar batzuk be: Toni Kukoc eta Dino Radja kroaziarrak, esaterako.

Zalantza barik, "Magic", Bird eta Jordan-ek itzitako utsunea oso gatxa izango da betetea. Orain, baiña, N.B.A.-ra eltzen ari diran jokalaria gazteei dagokie areik egindako bideari jarraitutea. Orain dabe aukera parebakoa euren benetako mailla erakutsi eta txapelketa zoragarri oneri eusteko here oizko goi-maillan.

### Nortzuk izango ete doguz txapeldun, aurten?

Onetzaz eritxiren bat emotea, zail samarra gertaten da, batez be, txapelketa asi barria dogulako eta, gaiñera, oraingo au lengoak baiña zabalagoa, irekiagoa agertuten dala esan bear, Michael Jordan-ek ez dauala jokatu gogoan artzen baldin ba'dogu.

Adituen ustez, urrengo lau taldeak izango litzakez txapeldun-erestuna lortzeko albiderik geienak izango leukeezanak:

—**PHOENIX SUNS.**— Lengo txapelketan azken partiduetara eltzea lortu eben, baiña Chicago Bulls geratu zan txapeldun. Talde gogorra osotuten dabe. Jokalari

berberak jarraitzen dabe eta A.C. Green ekarri dabe Los Angeles Lakers'etik. Bere jokalaririk onena Charles Barkley dogu. "Loditxua" txapeldun izatea gura dau, zelan edo alan, eta ez euki ezpairik, al dauan guztia egingo dau bere elburua lortzeko.

—**CHICAGO BULLS.**— Apur bat motelago agertzen dira Jordan barik baiña ez dogu aztu bear gaur egungo txapeldunak doguzala eta orrek bildurgarriak biurtzen dauz. Orrez gain, Scottie Pippen eta Horace Grant doguz euren izarrik nagusienak eta taldea sendotzeko jokalaria aundi bat ekarri dabe Europatik: Toni Kukoc kroaziarra. Beraz, ba dauke zer esanik asko, bai.

—**SEATTLE SUPERSONICS.**— Sarkaldeko taldekoa, Phoenix Suns bezala. Georges Karl'ek zuzenduten dauan talde onek arri to zur itzi ebazan, igaz, maxiatzaille eta ikusle guztiak here joku on eta indartsuagaitik. Aurten, jokalaria berberak daukazararik, Kendall Gill eta Schrempf-egaz batera urtebako ederrak emon leikeez.

—**NEW YORK KNICKS.**— Betiko txapeldun-gaiak. Igaz ondo ibilli ziran baiña Chicago Bulls-ek kanporatu zituan Sorkaldeko azken partiduetan. Orain, barriro, prest dagoz txapelketa eskuratzeko. Bere jokalaririk onena Pat Ewing dogu eta au, Barkley lez, txapelketaren atzetik dabil. Ikusi egin bear, beraz, noraiño eltzeko gauza ete diran.

Eta talde onein ostean, beste talde batzuk be aitatu giñeiz: Houston Rockets, Hakeem Olajuwon-egaz; S. Antonio Spurs, David Robinson'egaz; Portland Trail Blazers, Clyde Drexler'egaz edo-ta Cleveland Cavaliers, Nance eta Daugherty'gaz; Charlotte Hornets, Larry Johnson eta Alonzo Mourning'egaz eta Orlando Magic, Shaquille O,Neal aundiagaz.

Alan be, liga au oso luzea dan ezker, 82 partidu lenengo zatian eta gero "play-off" izenekoen neurketa gogor eta unkiagarriak, ezusteko eta aldaketa ugari egoteko astia eta aukerarik ba-dago.

Beraz, denboraldi barri oneri hegira, gauza on eta ikusgarriak itxaron geinkez, belaunaldi barri baten asieragaz, N.B.A.-ri ospea emoten jarraituko dauana, baiña, on bai, "MAGIC", BIRD eta JORDAN-en izenak betiko gogoratzen doguzala.

MALAX-ETXEBARRIA'tar YON



## GURASOEN ESKUBIDEAK NOIZ?

Guraso izatea ez da inoiz gauza erreza izan baiña, nire ustez, orain leen baiño zaillago ta gogorragoa da.

Gaurregun gurasoentzako ikastarotxoak ("escuela de padres" diralakoak), batzarrak eta abar antolatzen dira eta, adituen ustez, pedagogoak naiz psikologoak laguntza aundikoak izaten dira.

Asmo edo uste orregaz ni ez nago ados, nire iriziz ainbeste pedagogiaz eta oraingo gizartearen egoeraz guraso izatea gero eta geiago trabatu eta zallagotu egin da. Gure eskuetan dagona obeago edo txarrago konpontzen aalegindu gara, balm kanpoko arriskuak zelan konpondu?

Bilbao'tik edo edozein erriko kale batzutatik gaueko zortzi edo bederatzietatik aurrera ba'zabiltz, neska-mutil pilloa aurkituko dozu, tabernetan ez ezik, kale erdian zutik edo espaloietan jarrita, ia beti edontzi edo bonbil bat esku batetan eta errekin edo zigarroa bestean; orrelaxe dabiltz lekuri-leku azken taberna itxi arte, eta batzuk zelako ordutegia daben!

Gazte batzuk ardo bat edo bi bakarrik artzeko asmoz joaten dira, baiña barriketan luzaro egoteagatik edo besteak bezalakoak izan guraz, gero eta geiago erretzen eta edaten dabe, eta oituraren oituraz azkenean guzti orren bearra izaten dabe. Zein izango da urrengo urratsa? Ia beti alkooolazale izango dira, gero alkooldunak eta batzuentzat drogazale izateko bidea gerturik dago.

Agintariek orren aurka zeozer egiten dabe? Bai, taberna eta edantokietan "16 urtetik beerakoei alkooola saltzea debekatuta dago" iragarkia eskegi. Euren barrukoa onela benetan lasaituko dabe? Eta kaleetan edo izkutuan edaten dagozan gaztetxoak, nortzuk dabez areek zaintzen? Bearrezko dan arretaz egiten da? Ez, ez on eta ez beste gauza asko.

Errietako jaietan, esate baterako, gazteek gura daben soñua, zergaitik asten da amaitu bear leuken orduetan? Zergaitik ez da inor "gau pasa" moda on kendu edo neurtzera ausartzen? Gazteek patxadaz egotea, lanean edo ikasten baiño askoz geiago gurgu dabelako? Eta nork ez? baiña orrek dira eskatzen dabezan eskubideak? Eta nun dagoz bearkizunak? Gurasoengan bakarrik?

Edariak, jaiak, zaratak, edantokiak, dantzalekuak eta guzti orretarako mugarik ez dago, baiña gero, eta orren ondorioz: istripuak, lapurketak, borrokak, bortzaketak, e.a... Baña nork dau adore naikorik gauza guzti orreek laburtzeko? Edo Erakundeen bildurra da, gazteen autarki edo botoa galdu gura ez dabelako?

Sarritan, *lanik-eza* eta *eskola-porrotaldiaren* arazoak gauza orreengandik etortzen jakuz, eta ez erakundeek maiz emoten deuskuezan aitzakietatik.

Zer jasoten da, bestalde, gurasoek guzti on neurtu gura dogunean? Orduan batzuk etxetik joaten jakuz eta geienetan, zoritxarrez, zulo baltz baten jausteko.

Arazo au alderdi politiko guztien ardurapean jausi bear da, au eta ikustirratiaz edo telebistaz egiten dagozan astakeriaren amaiera bere bai. Gure seme-alabei samurtasuna, leialtasuna, zintzotasuna eta lotsagorria zer diran zelan irakatsi, egunero, eta ordu guztietan, orren aurkakoa dan guztitarikoa begietatik sartzen ba'jakez? Eta on gitxi balitz, oraingo "modazkoa" dan 903 diralako deiak, euren zabaltasuna, itzak edo berba lizunak, telebistako irudiak eta guzti.


Olan jarraitzen ba'dogu, eta gaurko egoera konpontzen ez bada, guk iraultza barria laster antolatuko dogu: GURASOEN ESKUBIDEEN ALDEKO IRAULTZA.

PALMI



# EUSKALDUN BARRIENTZAT


## TARTEGARRIAK



Gizon zarra.  
 Arpegian dogu.  
 Edaten dauna (alderantziz)  
 Zetazkoa, zeta dauna.  
 Gela mota.  
 Egun onetan.  
 Bizkaiko erria.  
 Bere aitaren semea.

·Nat `nxruza0

`ann~`Inlafuofa `unplaz `alnpa `ofn  
 VNHd'IVZV



Ona hemen Ule-luze kantari bat. 1'tetik 50 bitarterañoکو zebakiak leendabizi ta ondoren 60'tik 110 bitarterañoکو ak batu ta bere barri jakingo dozue.

ROTA<sup>i</sup>  
 tWTAL

Pasa dozu azterketa?

iop - !Op  
 VNad'IdZV

## MIXTERIOZKO UGARTEA

Nortzuk ziran ugartera eldu diran orreik?

Lau gizon eta mutikoa eta txakurra ziran:

- 1) Gideon Spillet, idazle (New York Times izparringirako idazten eban). Gizon aundia zan, kaskagorria.
- 2) Pencroft, itxasgizona.
- 3) Mutikoa, Pencroft en semea.
- 4) Neb, gizon baltza. Harding'en morroia.
- 5) Harding, gizon jakintsua zan. Ta oso adoretsua, itxasora txonbo egin ebana.
- 6) Top, Harding'en txakurra. Txakurrak be salto egin eban itxasora Harding'egaz.

## EDESTI LABURRA

Urte guztietan lez, ospatu dogu aurten be, Eskolapioen Ikastetxean, Euskerazaleak Alkartek eratu daun Euskal-Astea.

Egunero berrogei edo berrogei ta amar entzule izan doguz.

Izlari bakoitxari Zubiri'tar Iñaki'k egin dautso aurkezpena eta azkenean, Solozabal'dar Paulin'ek bertsotan agurtu dau izlaria.

Iru ordu lauren ingurukoak izan dira itzaldiak eta ostein beti izan da, luzeago edo laburrago, alkar-izketa.

Gaiak gogoangarriak eta izlariak egokiak.

Egunero DEIA egunkarian agertu dogu egin-dako itzaldiaren laburpena eta urrengo egunekoaren oarra.

\*\*\*

Lenengo egunean Olazar'tar Martin'ek egin eban berba eta gaia Kolon eta Euskaldunak izan zan.

Benetan jakingarria da euskaldunak Ameriketan izan eben zeregiña, bai Kolon'en laguntzaille lez eta ez gitxiago urrengo urteetan. Euskaldunak beti izaten ziran talde berezia, izkuntza berezia eukelako, eta sarritan jarri ziran Kolon'en aurka, onek zuzentasunez jokutzen ez ebanean edo emon eban berbea beteten ez ebanean.

\*\*\*

Euskaldunen izaera berezia agertzeko bide lez, odola artu eban Arrinda'tar Anes'ek bigarren egunean, oiñarri lez Jaka-Kortajarena'ren liburu dala. Egokia da Anes'ek gai au azaltzeko erabilten dauan era berezia, ura eta margoak nastauta.

Argi geratu zan ez garala ez obeak eta txarra-goak, baiña bai ezbardinak. Ori ez da endakeria or daukagun jakingarri bat baiño.

\*\*\*

Arana Goiri'tar Sabin'ek ikutu aundia izan eban Euskalerraren kondairan: ainbeste urtetan

inguru'ko laterriak gure erria menperatzeko egin daben alegiñak gure pentsakerea be aldatuta eukan, baiña Sabin'ek bere eldutasunera eldu zanean, Euskalerrria zer eta zelakoa izan bear zan argi ikusi eban eta ortik datorkuz gaurko ikuspegi bereziak.

Ondo azaldu eban gaia Oñatibia'tar Manu'k. SABIN'entzat irudi bat eskatu eban.

\*\*\*

Arrien'dar Gregorio gizon apala ta jakituna, Kondaira-arloan Dotoretza-mailla lortua. Bere Maixu - lanaren gaia Irakaskintza Euskalerrrian izan zan.

Pozik entzun geuntson aste onetako berbal-diaren gaia: Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko Jauna. Zati bitan banandu eban ekiñaldia, izenak berak diñoan lez.

Argi agertu eban zelan joan diran gure erriaren eskubideak egunerik egunera galtzen eta zelan joan diran españatarrak gure buru-jabetza eurenganduten.

\*\*\*

Euskaldunen abizenak aztergai sakona ta zabal dira eta gai oneri buruz itzaldia egiten dauan bakoitxak ikuspegi berezi bat artuko leuke alkarren barririk jakin ezik.


Augustin Zubikarai'k be bere ikuspegitik azaldu eban gaia.

Gure abizenak etxeetatik edo errietatik artuak dira geienak, baiña etxeak berak giro ezbardinak izan dauzan lez alan abizenak be. Aberezaiñen giroa zanean, abeletxeak, lugiñen arloan bizi diranak lurraren giroko abizenak, olak indarra euken aldian ola-etxeak eta abizenak, eta batzutan etxea non dagoan agertzen daben abizenak.

Gauza asko ikasi dogu aste onetan eta pozik ibilli gara. Urrango urtea obeto eta geiago.

OLAZAR'tar MARTIN

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*



**Bilbao Bizkaia Kutxa**